

EUSKARAK IRAUTEKO ETA BIZIBERRITZEKO TOKIA



JUAN MARIA ATUTXA

SABINO ARANA FUNDAZIOA. PRESIDENTEA

EUROPAKO hizkuntza-aniztasuna ez da estatu hizkuntzetara mugatzen, ez eta estatuen bidez Europar Batasunean ofizialtasuna eskuratu duten hizkuntzetara ere. Aitzitik, hizkuntza erkidego are gehiago dira estatu hizkuntza izaerarik ez dutenak... eta, hala ere, badirenak, existitzen direnak. Era berean, badira gutxiagoturiko hizkuntza erkidegoaren eremu osoan edo parte batean herriarren hizkuntza-eskubideak onartzen dituzten estatuak... bai eta errealitate horiek egongo ez balira jokatzeko dutenak ere. Bakoitzak bere iragana, oraina, beldurak eta ustezko mehatxuak nahierara kudeatzen eta erakusten baititu bizi garen Europa zaharrean.

Europaren iragan gatazkatsuen lekukoak dira estatu desberdinetan ageri diren hizkuntza eta kultura errealitateak, estatu batean ofiziala den hizkuntza ondoko estatuan gutxiengo baten hizkuntza izatea dakarrena. Mendeetan giza talde batzuek bestelako taldeak mendean hartzeko, irensteko eta haien kontura espazioa irabazteko joera nahiko zabaldua egon baita bazterretan... eta badira, herri txikiak eta hizkuntza txikiak ere, kosta ahala kosta irautea lortu dutenak, aldeko baldintzak gutxi izan dituzten arren. Horrexegatik, Europak barneratzen duen aniztasunak gaur arte irautea –maila batean behintzat– misterioa da gutxiengoak aztertzen dituzten askorentzat.

Zergatik eta zertarako eutsi dena kontra duzue? Beharbada, gure izenari eta izanari eutsi nahi diogulako izango da, horrexek osatzen duela gure, herri bakoitzaren bizi-indarraren oinarria.

Euskaldunok beti izango gara gutxi –beste batzuk diren bezala–, eta, bestelakoekin alderatuta, gure hizkuntza erkidegoa ere beti izango da txikia. Nolanahi ere, txikitasun horrek eskubide gutxiago ditugula, inor baino eskasagoak garela ez du esan gura. Hari berari tenk eginez, ez ditzagun hizkuntza handien, handinahien hitzetan hegemonikoen ispluan geure burua islatuta ikusi euskararen iraupena eta biziberritzea ziurtatzeko egin beharrekoak zehazteko orduan.

Koldo Mitxelenaren hitzak gogora ekarriz: “Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hizkuntza segurtatzeko behar adinako tokia”. Horra hor ezin hobeto adierazita gakoa. Muturreko posizioak ez dira onak hizkuntza gutxiagotuen eremura jendea erakartzeko, adostasunak bilatzeko, ez eta biziberritzeko ere... baina gutxiengo baldintzak ere behar dira geurea bezalako hizkuntza batek iragana ez ezik etorkizuna ere izan dezan, aniztasunean geroz eta txiroagoa den mundu zabal honetan.

Guk, estatu eta errealitate desberdinetan sakabanaturik gauden euskaldunok, geure bidea egin nahi dugu hizkuntza eta herri artean, geurea ederretsi eta geure zilborrari begira lokartu gabe... Europara, mundura irekiak, gure hizkuntza eta kultura bidelagun ditugula egin nahi ditugu urratsak... eta egin beharreko horretan, 2013ko irailaren 11n, Europako Parlamentuak desagertzeko arriskua duten europar hizkuntzei eta hizkuntza aniztasunari buruz onarturiko ebazpena lagungarri gerta daiteke.

Gauzak horrela, Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak ebazpen hori aztertu nahi izan zuten, 2014ko otsailaren 21ean, Bilbon, Fundazioaren egoitzan eginiko mintegian. Bertara hurreratu ziren ebazpena prestatzen aritu ziren Europako Parlamentuko talde eta pentsaera desberdinetako kideak, bai eta Euskal Herriko herri-aginte, elkarte eta erakundeetako ordezkariak ere. Esku artean duzu emaitza.

Gogoeta, ideiak behar ditugu irauteko, biziberritzeko eta indartzeko, ez baitago nagiak astintzeko eta ezintasunak mugiarazteko haize bolada indartsuagorik!

Guk geure bidea egin nahi dugu hizkuntza eta herri artean, Europara, mundura irekiak, gure hizkuntza eta kultura bidelagun ditugula